

4

Terminologiak anpara gaitzala

Xabier Isasi Balanzategi

Euskal Herriko Unibertsitatea

xabier.isasi@ehu.es

Sarrera-data: 2011-06-22 | Onartze-data: 2011-07-30

Laburpena. Diglosia egoera ezaugarritzen duten faktore nagusiak ez dira Euskal Herriko hizkuntza egoeran atzematen. Euskal Herrian bizitzen ari garen hizkuntza egoera ez da diglosia motakoa, beraz. Euskal Herriko hizkuntza-egoera definizio berria bilatu behar dugu. Eginkizun horretan soziolinguistika jakintza-alorreko oinarritzko terminologia adostua izatea behar-beharrezkoa da. Euskara, soziolinguistikaren ikuspegitik, zer hizkuntza mota den, hiztun-elkartea zer den edota hizkuntzak desagertzen ala galtzen diren argituko badugu. • **Hitz gakoak:** *diglosia, terminologia, hizkuntza biziberritzea, elebitasuna.*

Abstract. *May terminologies protect us!* The main factors that characterise a situation of diglossia cannot be perceived in the Basque Country's language situation. The language situation we are experiencing in the Basque Country is not of a diglossic type. We have to come up with a new definition of the Basque Country's language situation. In this task it is absolutely essential to agree on the basic terminology in the knowledge area of sociolinguistics, if we want to clarify, from a sociolinguistic perspective, what kind of language Basque is, what a speech community is, or whether the language is disappearing or being lost. • **Key Words:** *diglossia, terminology, language revival, bilingualism.*

ATARIKO

I

Gizarte zientzietan, Ekonomian, Soziologian, Psikologian eta Soziolinguistikan ere, gaur arte, behintzat, ez dago legerik. Hau da, ez dago modu jakinik gertaera bat, edo batzuk, nolakoak izango diren jakiteko erabateko zehaztasunez. Iraganeko fenomenoak nola eta zergatik gertatu izan diren, agian, azal dezakegu. Edozelan ere, kasu horietan ere, azalpen bat baino gehiago izatea ohikoa da.

Adibidez, erabateko konbentzimenduz aldarrika dezakegu edozein hizkuntzaren biziraupenerako eredu estandarra izatea ezinbestekoa dela. Halere, eredu estandarra zeukaten hizkuntza bat baino gehiago galdu izan dira. Wilhelm Humboldttek edo Miguel de Unamunok argudioak eta arrazoiak bazeuzkaten esan ahal izateko euskara galduko zela, erabiltzen zituzten arrazoiak, datu, analisi eta euren garaiko teoria sendoe-tatik eratorriak ziren-eta. Euskara, ordea, ez da galdu. Gizarte zientzietako ikertzaileak badaki jakin bere metodoa mugatua dela eta ez diola erabateko bermerik eskaintzen gertatuko dena doi-doi jakiteko, lege bati jarraituz edo. Gerta daitekeela esatearekin konformatu behar du ikertzaileak, gerta daitekeela baldin eta baldintza jakin batzuk betetzen badira, eta, horrela izanik ere, ez da guztiz segurua gertatuko denik.

Inork ez daki 200 urte barru euskarak biziko den, era berean, ez daki inork euskara 200 urte barru galdua egongo den; ez daukagu jakiterik. Dakiguna da euskara, gaur gaurkoz, bizirik dagoela eta Humboldttek eta Unamunok ezin itxaro zuketan zerbait gertatu izan dela euskara oraindino bizirik egoteko. Kasu honetan, zorionez, gizarte zientzien ahuldadeek ez zien biderik eman hizkuntzaren ezinbesteko galera iragarri ahal izateko. Zoritxarrez, beste aldetik, gizarte zientzien ahuldade horiek beroriek ez dute biderik ematen hizkuntzaren biziraupenaren berme guztizko giltzarriak aurkitzeko.

Ez dugu esan nahi gizarte zientziak alferrikakoak direnik, ezta urrik ere. Gizarte zientziak, oro har, eta ikerketa sozialak, partikulariki, gero eta baliagarriagoak eta argigarriagoak dira, soziolinguistikazkoak barne, gizarte alorreko problemei soluzioak aurkitzeko. Euskararen biziraupen bera ere, esate baterako, ez dago ulertzerik linguistika eta soziolinguistika zientzien ekarpenetatik aparte; euskararen gaur eguneko egoera, ona edo txarra izan nork bere ikuspegiaren arabera, ez litzateke den hori izango Euskara Batua existituko ez balitz, eta Euskara Batua sortu ahal izan da, besteak beste, hizkuntzalariei esker. Euskara Batua, hitzun-elkartearen hizkuntza eredu estandarra izatea, eta estandar hori sozialki eta politikoki zabal onartua izatea, *objektiboki* euskararen biziraupenerako onuragarriak dira, hizkuntza

**Gizarte zientziak,
oro har, eta
ikerketa sozialak,
partikulariki, gero
eta
baliagarriagoak
eta
argigarriagoak
dira,
soziolinguistikaz
koak barne,
gizarte alorreko
problemei
soluzioak
aurkitzeko.**

**Euskararen
egoeraren
gaineko
oinarrizko
diagnostiko
adostua eta
funtsezko
terminologian
kontsentsu maila
gutxienekoa lortu
behar ditugu.**

**Badakigu jakin,
egoera zertan
den, agian, baina
ez gatoz bat
berau
izendatzerakoan
eta
deskribatzerakoan.**

estandarra izatea eta onartua izatea, alegia. Euskara *biziago* dago orain Euskara Batuarekin, lehen hizkuntza estandarrik gabe zegoena baino. Zientziak, hizkuntzalaritzak eta soziolinguistikak kasu honetan, ekarpen erabakigarriak egin ditu euskararen biziraupenean. Euskararen eredu estandarrik izan barik, adibidez, nekez izan genitzake dauzkagun euskarazko hedabideak, nekez idatz genitzakeen Wikipediako euskarazko 100.000 artikulua eta nekez lor genetzake euskarak duen presentzia hezkuntza-sisteman.

Esan moduan, egia da, gizarte zientzietako lanabesek, gaur gaurkoz, ez digutela ahalbidetzen geroa igartzea baina oso erabilgarriak dira euskararen egoera aztertzeke eta bere biziraupenerako erabaki egokiak hartzeke. Egia da, bestetik, soziolinguistikazko teoriak gaurkotzea eta eraberritzea behar-beharrezkoa dugula eta, horrekin batera, soziolinguistika aplikatua, euskal soziolinguistika, garatu eta sakondu behar dugula. Euskararen egoeraren gaineko oinarrizko diagnostiko adostua eta funtsezko terminologian kontsentsu maila gutxienekoa lortu behar ditugu, beraz. Hori da gure gaia.

Diglosiazko formulazio berritu bat hil ala biziko eginkizuna dugu —diosku Mikel Zalbidetik—. *Hori gabe jai du euskarak, hasi berri den mende honetan*. Latza. Halere, muinean, bat gatoz Zalbidetik jaunak dioenarekin, hiztun-elkartea zein egoeran bizi den jakin barik nekez asma dezakegu aurrerabidea nondik nora doan. Hori gertatzen baita: bizi garen egoera zein nolakoa den ez dakigula, alegia. Badakigu jakin, egoera zertan den, agian, baina ez gatoz bat berau izendatzerakoan eta deskribatzerakoan. Zenbat buru hainbat aburu. Iritzi-trukea eta eztabaida beharrezkoa da, elkarren errespetuan, bai, baina argi eta zintzo. Lantegi horretan Mikel Zalbidetik ekarritakoa, eskertzekeaz harago, abiapuntu interesgarria da.

Hizkuntzen arteko ukipen egoerako neke-penak sufritzen kondenturik bizi gara euskaldunok, kulparik dugun ala ez jakin gabe. Kontua da, garaiotako euskaldunok ez dugula hautatu gure hiztun-elkartearen egoera malapartatu hau, heredatua dela. Beste kontua da ere, gure arbasoek, pobrezia eta gerrate artean, ez zutela bat ere erraza izan euskara mundura jalgiteko. Baina gu izan gara, gure belaunaldikook, galtzeko zorian zegoen hizkuntza estandarizatu eta biziberritze bidean ipini dugunak. Heredatu genuen egoera aldatu da, zehazki, guk aldarazi dugu. Okerrera ala onbiderako aldatu dugu?

XIX. mendearen hondarrean Euskal Herrian zeuden euskaldunak XXI. mende hasieran baino gutxiago ziren, gaurko kopuruaren erdia baino zerbait gehiago, hain zuzen ere. Alabaina, XIX. mendean euskaldunak gehiengo ziren, biztanleriaren %50a baino gehiagoan¹, euren artean asko, gehienak seguru aski, euskaldun elebakarrak ziren; garai hartako gizartean euskara erabiltzea ezinbestekoa zen, beraz. Gaur egun,

ostera, euskaldunok gutxiengoa gara, biztanleriaren heren bat ozta-ozta, eta guztiok, salbuespenik salbuespen, elebidunak edo eleaniztunak gara, euskaldun elebakarren multzoa erabat desagertu da; pertsonaren bizi-modu arruntean euskara erabiltzea, bada, ez da ezinbestekoa. Ehun urteren buruan euskararen erabilera, maila baten edo bestean, ezinbestekoa izatetik aukerazkoa izatera igaro da; hizkuntza-erabilera gertaera segurua izatetik zorizko gertaera izatera igaro da.

Ehun urte, gutxi gora behera, nahikoa izan da euskararen egoera soziolinguistikoa erabat iraultzeko. XIX. mendean eta XX. mende hasierako diglosia desagertu da euskaldun elebakarren multzoarekin batera. Diglosia ez da betierekoa.

Euskaldun elebakarren multzoa eta diglosia desagertzen ari zirenean, XX. mendeko 64. urtetik hasita, euskararen hiztun-elkartea hizkuntza estandarra (Euskara Batua) osatzeari lotu zitzaion. Lotu eta, urte gutxiren buruan, neke eta eztabaida ugari tarteko, lortu ere. Dagoeneko, euskararen hiztun-elkartek hizkuntza estandarra (nahikoa) badu eduki, lurralde eta instituzio guztietan onetsita eta nazioarte mailan onartua. Azken 50 urteotan euskararekin gertatu dena, linguistika eta soziolinguistikaren ikuspegitik, bederen, harrigarria izan da eta aditu askoren arreta ekarri izan du. Beharbada, hori bai paradoxa, bertoko unibertsitateetan gertaera harrigarri horri ez zaio behar adinako arreta jarri. Euskararen hiztun-elkarteko *intelligentsiak* hizkuntza eredu estandarra proposatzeko eta eratzeko bere onenak eman bazituen ere, euskara biziberritu ahal izateko behar den hizkuntza-estatusa lortzeko ez du eredu teoriko garatzeko gauza askorik egin edo, bederen, ez du asmatu.

Aurten betetzen dira, doi-doi, 25 urte Jose María Sánchez Carrión ikertzaileak, *Txepetx*, bere doktore-tesia, *Teoría sociolingüística de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*, Luis Mitxelena irakasleak zuzendutakoa, Euskal Herriko Unibertsitatean defendatu zueneko. Orduz geroztik, ikuspegi akademikotik eta zientifikotik, behinik behin, gutxi aurreratu dugu, oso gutxi. Mikel Zalbideren ekarpen honek, agian, balio dezake urrats bat edo beste egin ahal izateko.

1. EGOERA

I

Mikel Zalbide etxeko lanak dotore egina etorri zaigu *Diglosiaren Purgatorioaz*. Diglosiaren gaineko bibliografia luze-zabal arakatu du, arakatu ez eze ondo jorratu eta han hemen autore nagusien ildoak ondo markatu dizkigu. Aipatuenen hurrenkeran, J. A. Fishman,; Ch. A. Ferguson,.; R.Ll Ninyoles,.; Ll. V. Aracil,; Ch. B. Paulston,; G. Garate,; L. Mitxelena, eta

XIX. mendean euskaldunak gehiengoa ziren, biztanleriaren %50a baino gehiagoan, euren artean asko, gehienak seguru aski, euskaldun elebakarrak ziren; garai hartako gizartean euskara erabiltzea ezinbestekoa zen, beraz.

**Ehun urteren
buruan
euskararen
erabilera, maila
baten edo
bestean,
ezinbestekoa
izatetik
aukerazkoa
izatera igaro da;
hizkuntza-
erabilera
gertaera segurua
izatetik zorizko
gertaera izatera
igaro da.**

J.M. Sánchez Carrión, (*Txepetx*), besteak beste, osatzen dute Zalbidereen autoreen multzoa. Soziolinguistikan erreferentziazko ezinbesteko autoreak dira, guztiak, bistan da. Beharbada, psikolinguistika jakintza alorrari dagokionez, autoreren bat edo beste aipatuko nuke nik, adibidez, J. Hamers eta M. Blanc (1989): *Bilinguality and bilingualism*. Cambridge: Cambridge University Press.

Onar dezagun, hasiera-hasieratik, Mikel Zalbidek proposatzen digun diglosia kontzeptuaren adiera². Ez arrazoia eman eta isilarazteagatik, ez, zintzoki bat gatozelako baizik. Horrela, adiera hertsian, euskararen hiztun-elkartea ez da, gaur egun, egoera diglosikoan bizi; Euskal Herrian ez dago diglosiarik. Ados. Gaur egun, ez dago hizkuntzen arteko banaketa funtzionalik (*functional compartmentalization*), ez dago gune edo zonalde euskaldunik (euskaraz nagusiki erabiltzen duenik), hizkuntzen geroraztean, transmisioan, ez dago aurrerapenik, eta, azkenik, hizkuntzen (erabilera-eremu, modu eta abarren) arteko berezitasunak ezabatzen ari dira. Diglosia terminoak, beraz, ez digu balio Euskal Herrian bizi dugun berriazko hizkuntza-egoera izendatzeko. Hori da, hain zuzen ere, *Diglosiaren purgatorioaz* txostenari datxekion konklusiorik behinena.

Diglosia barik Zalbide jaunak Euskal Herriko hizkuntza egoera honela definitzen du: *behinolako diglosia betearen azken arrastoak baizik gelditzen ez zaizkion elebitasun partzialeko egoera mugikorra*.

Arrastoak arrasto, hau idazterakoan diglosiaren azken aztarnak desagerturik izan zitekeen. Diglosiarena utzita, bada, gurea *elebitasun partzialeko egoera mugikorra* da. Diglosiarik ez badago, berriz, ulertu behar dugu *elebitasun partziala* esaten duenean, biztanleria osoa baino biztanleriaren zati bat besterik ez dela elebiduna eta beste zatia, oro har, elebakarra, erdalduna. *Partziala* adjektiboa, beraz, ez dugu ulertzen elebidunen ezaugarri psikolinguistikoa denik. *Egoera mugikorra* esaterakoan, ordea, ulertzen dugu egoera aldagarria eta egongaitza dela, beste barik. Edozein kasutan, gure eztabaidagaia hizkuntza-egoera baino hiztun-elkartearen egoera dela zehaztu beharko genuke. Baina zeintzuk dira, gaur egun, hiztun-elkartearen egoeraren ezaugarri bereizgarriak?

1. Gutxiengoa da, biztanleriaren erdia baino gutxiago edozein kasutan.
2. Non hiztun-elkarteko kide guztiak, maila bateko edo besteko, elebidunak diren.
3. Hizkuntza-ukipen egoera bi desberdinetan murgildurik —eus-kara/gaztelania eta euskara/frantsesa— lurraldean sakabanaturik bizi dena.

4. Egoera administratibo eta juridiko desberdinetan banaturik —Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Komunitatean edo Atlantikoko Pirinioetako Departamenduan (Iparraldean)—, hizkuntza estatus desberdinetako multzotan banaturik, hain zuzen ere.

5. Diglosiarik gabekoa.

Demagun zerrendatutako bost ezaugarri bereizgarri horiekin bat gatzela, honela definienezake (euskararen) hiztun-elkartea: gaztelanierikiko eta frantsesarekiko hizkuntza-ukipen egoerako lurraldean sakanaturik bizi den biztanleriaren gutxiengo hiztun-elkarte elebiduna.

Baina diglosia modu bat, azken finean: euskara-erdaren konpartimentazioa, luze-zabaleko funtzio-banaketa egonkorra garantizatuko duena, bilatu eta hezur-mamitu behar omen dugu euskaldunok eta erdaldunok. (M. Zalbidetik –2004–).

Kohesionatu gabeko hiztun-elkarte elebidun txikiko hizkuntza-ukipen egoera egongaitza da, ederto. Baina norantz mugitzen da egoera egongaitza? Diglosia egoera berri alderantz? Euskara betiko galtze alderantz, akaso?

2. HIZKUNTZA

Diglosia berez, txarra edo ona den juzgatu gabe, Euskal Herrian diglosia galduta, euskarari dagokionez, hizkuntza egoera makurragoan gaudela esan dezakegu. Hau da, diglosia egoera berreskuratu behar dugu hizkuntzaren egoera hobetuko bada. Lehen esan moduan, Zalbideren testuak, inplizituki, aditzera ematen du euskara biziberritzeko (lehengo) diglosia egoera oraingo egoera baino hobea dela. Euskara biziberritzeko diglosia egoerara itzuli behar dugula, alegia. Hagatik, euskararen egoera ez dela diglosikoa nabarmentzearren, seguru asko, Zalbidetik izendatzen du euskara *ahuldutako hizkuntza* eta ez du behin ere aipatzen euskara *hizkuntza gutxitu* gisa. Zalbidetik (2003) esaten du: *Ahuldutako hizkuntza diogunean, egungo bibliografia tekniko ezaun eta pisuzkoenean “endangered language” edo “threatened language” esaten den hori azaldu nahi genuke. Galtzeko arriskuan dagoen, bere bizi-iraupena mehatxupean daukan hizkuntza. Belaunaldi batetik bestera atzeraka doan hizkuntza: gero eta hiztun gutxiago dituelako eta, hori aski ez balitz, hiztun horiek gero eta esparru edo funtzio gutxiagotan erabiltzen dutelako hizkuntza ahul hori. Hori da, funtsean, ahuldu horrekin azaldu nahi dena: hizkuntza atzeraka doala belaunez belaun eta, egungo joera nagusiari buelta ematen ez bazaio, galtzeko arrisku bizian dagoela.*³

Galtzeko arriskuan (*endangered*) edo bizi-iraupena mehatxupean (*threatened*) izatea, alde batetik, edo *ahuldutakoa* hizkuntza izatea, bestetik, ez datoz bat nire ustez. Gauza bat da hiltzorian edo bizirauteko mehatxu-

Adiera hertsian, euskararen hiztun-elkartea ez da, gaur egun, egoera diglosikoan bizi; Euskal Herrian ez dago diglosiarik. Gaur egun, ez dago hizkuntzen arteko banaketa funtzionalik ez dago gune edo zonalde euskaldunik (euskaraz nagusiki erabiltzen duenik), hizkuntzen gerortzean, transmisioan, ez dago aurrerapenik, eta, azkenik, hizkuntzen (erabileraren) eremu, modu eta abarren) arteko berezitasunak ezabatzen ari dira. Diglosia terminoak, beraz, ez digu balio Euskal Herrian bizi dugun berriazko hizkuntza-egoera izendatzeko. Hori da, hain zuzen ere, Diglosiaren purgatorioaz txostenari datzekion konklusiorik behinena.

Honela definienezake (euskararen) hiztun-elkartea: gaztelaniarekiko eta frantsesarekiko hizkuntza-ukipen egoerako lurraldean sakabanaturik bizi den biztanleriaren gutxiengo hiztun-elkarte elebiduna.

pean egotea eta beste bat (osasun) ahulekoa izatea. Euskara, UNESCOren sailkapenean, hizkuntza *zaurgarria* (*vulnerable*) da, galtzeko egoeran egoiteko arrisku-zorian dagoena, alegia. Lausogarria iruditzen zait esatea euskara ahuldutako hizkuntza denik euskara galtzeko (benetako) arriskuan dagoelako. UNESCOk munduko hizkuntzak 6 kategorietara biltzen ditu hizkuntza-bizitasun mailaren arabera:

1. taula: UNESCOren munduko hizkuntzen sailkapena⁴

	Bizitasun maila	Hizkuntzaren transmisioa belaunez belaun
	Salbu	Belaunaldi guztiek ezagutu eta erabiltzen dute eta hizkuntzaren transmisioa belaunez belaun jarraikia da.
📍	Zaurigarri	Haur gehienek hizkuntza jakinagatik, hizkuntzaren erabilera eremu jakinetara mugatua da (familiako etxea, esate baterako)
📍	Arriskuan	Hizkuntza ez da umeen ama-hizkuntza, haurrek ez dute hizkuntza familiekin ikasten.
📍	Arrisku nabarmenean	Aiton amonek eta belaunaldi zaharrenetako pertsonak beste inork ez du hitz egiten. Gurasoek, uler badezakete ere, ez dute erabiltzen, ez elkarren artean ezta seme-alabekin ere.
📍	Arrisku larrian	Aiton amonak eta belaunaldi zaharrenetakoak dira hiztun bakarrak baina inoiz gutxitan erabiltzen dute hizkuntza era mugatuan.
📍	Galdurik	Hizkuntzak hiztun guztiak galdu ditu.

UNESCOren sailkapen horretan, euskara hizkuntza *zaurgarria* (*vulnerable*) da. Auzia da euskararen egoera ezaugarritzeko, kalifikatzeko, adjektibo desberdinak erabili ohi dugula. Molde asko erabiltzen dira: hizkuntza *zaurgarria*, ahuldutako hizkuntza, hizkuntza gutxitua, hizkuntza minorizatua, mendeko hizkuntza, eremu urriko hizkuntza eta gutxiengoaren hizkuntza, besteak beste. Izendapen horietako batzuk erabat deskribatzaileak dira, adibidez, gutxiengoaren hizkuntza, non adiera erabat zehatza den eta modu bakarrean uler daitekeen. Beste izendapen batzuk, ostera, lausotuagoak dira eta interpretazioren bat eskatzen dute. Horrela, *zaurgarria*, *ahulduta*, *gutxitua*, *minorizatua* edo *eremu urrikoa* direlako ezaugarriak eredu teoriko jakinen baitakoak dira, interpretagarriak dira, alegia.

Esanenezake, adibidez, euskara dela *gutxiengo baten galtzeko arriskuan* dagoen *mendeko*, *eremu urriko*, *ahuldutako hizkuntza zaurigarria*, *minorizatua* eta *gutxitua*, eta, neurri batean edo bestean, seguru asmatzen dugula. Problema da euskararen egoera definitzeko erabiltzen dugun ezaugarri

bakoitzak bere ñabardurak eta berezitasunak eransten dituela eta, zenbait kasutan, ezaugarriok elkarren kontrajarriak izan daitezkeela. Adostu behar dugu euskararen egoera zertan den, diglosia dagoen ala besterik den, adostu behar dugu terminologia edo, bederen, autore bakoitzak zein eta nola erabiltzen duen ulertu.

3. HITZAK, TERMINOLOGIA

Joan den urtean (2010) Eusko Jaurlearitzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (Kultura Saila) “Soziolinguistika Hiztegia. Euskal Soziolinguistikoaren eremuan erabiltzeko” liburuxka argitaratu zuen. Soziolinguistikari buruzko terminologia-hiztegia, printzipioz, oso lanabes interesgarria da. Uste nuen, horregatik, aipatu hiztegi horrek lagunduko zidakeela Zalbidek erabiltzen duen terminologia ulertzen. Usteak erdi ustel, hiztegi horretan ez baitira agertzen Mikel Zalbidek erabiltzen dituen hainbat termino. Adibidez, hiztun-elkarte, ahuldutako hizkuntza edota arnasmune, Zalbidek sarri erabiltzen dituen batzuk aipatzeagatik. Badirudi irudi Mikel Zalbidek berariazko terminologia erabiltzen duela, eta neurri batean hala da, baina Zalbidek Fishmanen testuetatik jaso eta euskaratu egin du. Badirudi, beraz, euskal soziolinguistikako adituek ez dutela aintzat hartzen Fishmanen terminologia edo, izan daiteke ere, ezagutu bai baina beste modu batera euskaratu dutela.

Bat izan ala bestea izan, aipatu hiztegi horretan ez dute Fishmanen bibliografiarik aipatzen, ezta Mikel Zalbiderena ere. Datu bat da. Diglosiaren ulerkera nolakoa den jakitea arazoa da, bai, baina problema handiagoa da, gure ustez, adituek soziolinguistika jakintza-alorreko objektu berdinak izendatzeko termino diferenteak erabiltzea. Soziolinguistika jakintza-alorreko oinarritzko terminologia adostu beharko genuke elkar ondo ulertu nahi badugu. Terminologiarekin dugun auzia agerian uzteko lagin gisa, zerrenda txiki bat osatu dugu:

Kohesionatu gabeko hiztun-elkarte elebidun txikiko hizkuntza-ukipen egoera egongaitza da, ederto. Baina norantz mugitzen da egoera egongaitza? Diglosia egoera berri alderantz? Euskara betiko galtze alderantz, akaso?

**Adostu behar
dugu euskararen
egoera zertan
den, diglosia
dagoen ala
besterik den,
adostu behar
dugu
terminologia edo,
bederen, autore
bakoitzak zein
eta nola
erabiltzen duen
ulertu.**

**Diglosiaren
ulerkera nolakoa
den jakitea
arazoa da, bai,
baina problema
handiagoa da,
gure ustez,
adituek
soziolinguistika
jakintza-alarreko
objektu berdinak
izendatzeko
termino
diferenteak
erabiltzea.**

2. taula: Soziolinguistika jakintza-alarreko oinarritzko terminologia

<i>Dominant language</i>	Hizkuntza menderatzaile (Euskalterm soziolinguistika)
<i>Endangered languages</i>	Galtzeko arrisku egoerako hizkuntzak (ez du ordainik Euskaltermen); Ahuldutako hizkuntza (Zalbidek)* ⁵
<i>Language contact</i>	Hizkuntza-ukipen (Euskalterm soziolinguistika)
<i>Language maintenance</i>	Hizkuntza iraupena (Euskalterm soziolinguistika)*
<i>Language planning</i>	Hizkuntza-plangintza (Euskalterm)
<i>Language revitalization</i>	Hizkuntza biziberritze, hizkuntza indarberitze (Zalbidek, Euskaltermek ez du ordainik ematen)*
<i>Languages in Contact</i>	Ukipen-hizkuntzak (Euskalterm soziolinguistika)
<i>Linguistic Community</i>	Hizkuntza-komunitate (Euskalterm hizkuntzalaritza)
<i>Minority language</i>	Eremu urriko hizkuntza (Euskalterm soziolinguistika); gutxiengoaren hizkuntza terminoa hobetsiko genuke
<i>Native language</i>	Jaioterriko hizkuntza / Bertako hizkuntza (Euskalterm hizkuntzalaritza)
<i>Reversing Language Shift</i>	Hizkuntza-ordezkapena Alderantzikatzea (Euskalterm soziolinguistika); <i>Hizkuntza INdarBerritzeak</i> (HINBE, Zalbidek). Hizkuntza indarberitze (Soziolinguistika Hiztegia)
<i>Speech community</i>	Hiztun-elkarte (Zalbidek) (Euskaltermek ez du ordainik ematen)*
<i>Standard language</i>	Hizkuntza estandar (Euskalterm soziolinguistika)
<i>Standardized language</i>	Hizkuntza normaldu / hizkuntza normalizatu (Euskalterm hizkuntzalaritza)
<i>Threatened language</i>	Mehatzaturiko hizkuntza (Euskaltermek ez du ordainik ematen) ; Ahuldutako hizkuntza (Zalbidek)*

Mikel Zalbide, gure ustez, gaur eguneko euskal soziolinguistikan erreferentzia nagusia da. Bere ikuspegia eta ekarpenak eta, haiekin batera, Zalbidek darabilen terminologia zabaltzen ari dira. Hori ondo dago. Falta da, ordea, oinarritzko terminologia hori adostea eta terminologia-hiztegi erabilienetara eramatea.

Euskara, galtzeko arrisku mailari dagokionez, ahuldutako hizkuntza dela esan dezakegu, bai, baina ez litzateke egokiago UNESCOren terminologia erabiltzea, eta euskara galtzeko arriskuan edo hizkuntza zaugarria dela esatea? Hizkuntzaren egoerari dagokionez, egoera diglosia ez bada ere, euskara hizkuntza gutxitua da. Euskara hizkuntza gutxitua eta gatzelania (Hegoaldean) eta frantsesa (Iparraldean) hizkuntza menderatzaileak, komunak edo nagusiak dira. Hizkuntza-komunitatea (*Language Community*) eta hiztun-elkartea (*Speech Community*) konstruktua desberdinak dira. *Arnasguneak*⁶, azkenik, euskararen (erabilerarako) zonaldeak edo eremu sozio funtzionalak besterik ez dira. Terminologia zehatza eta

adostua erabiltzeak abantaila asko dauka, hobeto ulertuko genuke elkar, plangintza eraginkorragoak egin genitzake eta munduko adituei errazago azal geniezaieke gure egoera zertan den. ●

4. ERREFERENTZIAK

- Alvarez Enparantza, J. L. (*Txillardegia*) (2001). *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen (SEI). Donostia.
- Hamers, Josiane F. & Michel F.A. Blanc (2000). *Bilinguality and bilingualism*. Cambridge University Press. Cambridge.
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (IVAP) (2010). *Soziolinguistika Hiztegia. Euskal Soziolinguistikoaren eremuan erabiltzeko*. Gasteiz.
- UNESCO (Grupo especial de expertos sobre las lenguas en peligro convocados por la UNESCO) (2003): *Vitalidad y peligro de desaparición de las lenguas* (Paris) <http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001836/183699S.pdf>.

OHARRAK

- 1 Cierbide Martinena, Ricardo (1985) *Semblanza y obra de Ladislao de Velasco* RIEV 30. alea 197-212 or.
- 2 Diglosiak, ele barnekoak zein (orain eta hemen dakigunez) ele artekoak hiru osagai ditu funtsezko, ezer argirik aterako badugu: talde-izaera (ez norbanakoa), iraupen luzea (hots, gutxienez hiru belaunalditara iristen den egonkortasuna) eta, nola ez, espazio soziofuntzionalaren konpartimentazioa. Horiek gabe ez da diglosiarik. (M. Zalbidek -2004- http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1086087086)
3. http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1056974834
4. <http://www.unesco.org/new/en/culture/themes/cultural-diversity/languages-and-multilingualism/endangered-languages/atlas-of-languages-in-danger/>
5. * ikurrez markatu ditugu *Soziolinguistika Hiztegia*n agertzen ez diren terminoak
- 6 *physical breathing space, demographically concentrated space where Xish can be on its own turf, predominant and unharassed* (http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1086087086)

Euskara, galtzeko arrisku mailari dagokionez, ahuldutako hizkuntza dela esan dezakegu, bai, baina ez litzateke egokiago UNESCOren terminologia erabiltzea, eta euskara galtzeko arriskuan edo hizkuntza zaurgarria dela esatea? Hizkuntzaren egoerari dagokionez, egoera diglosia ez bada ere, euskara hizkuntza gutxitua da.